

Errukiaren Jubileu Urtea
– Abenduan –

Goazen etxera, bisita daukagu

1. Hasiera (Poema)

...Non nabil?... Non nago?... Nor naiz?...
Nondik da etxera itzultzeko bidea?
Egun hartan aldegin nuen etxetik
—ez galdetu zergatik, ez dakit!—.
Urrutiko argi distiratsu eta erakargarri haiek
liluratu ninduten, zorabiatu.

Joan eta joan...
Gerora jabetu nintzen
etxean utzi nuela neure argazkia...
eta ez dakit nor naizen!
Ez dut ezagutzen nire barrua,
nortasunik gabeko gizaki galdua naiz...

Gaur izar bat dut bihotzean deika,
eta izarrak etxera itzultzeko esan dit,
han daukadala neure argazkia etxean,
han daukadala nortasuna margotzen didan maitasuna etxean,
bisita bat zain daukadala etxean.

Bai, etxera itzuli nahi dut,
neure etxera,
berriro ere naizena izan nahi dut
eta gainean pilatu ditudan mozorroak erantzi,
naizena izateko.

Han sukaldean, maitasunaren horman,
zintzilik aurkituko dut neure argazkia,
utzi nuen tokian bertan, hautsez estalia agian.

Hautsak kendu behar dizkiot neure argazkiari.
Neure burua ezagutzeko ausarta izan behar dut.

Izan ere, nire bide galduetan hotz egiten du, hotz iluna.
Maitasunaren sua piztuko zait etxean...
Eta berriro pozaren beroa itzuliko zait bihotzera.
Nire pauso baldarrez abiatuko naiz...
Berriro etxea dut helmuga,
nire argazkia daukan maitasunaren horma
dut amets eta gogo.

Nor da etxean deika daukadan bisitaria?
Zer dakar bisita honek?
Nork irekiko dit etxeko atea?
Nork sortu dit etxera itzultzeko gogo?

(Isilunea utzi eta Zatoz, Jauna... kanta daiteke)

2. Kantua

Zatoz, Jauna! / Gaur zain duzu mundua,
zorigaitzez / hain da hondatua!
Zatoz, Jauna! Zabal, otoi, zerua: etor bedi / zure erreinua.

Zatoz, Jauna! / Nausi baita dirua:
jendea maiz / dauka zapaldua.
Entzun, Jauna! / behartsuen oihua: etor bedi / zure erreinua.

Zatoz, Jauna! / Hor gabiltza gauez gau:
Piztu gugan / fedearen sua.
Entzun, Jauna! / argi ezazu mundua: etor bedi / zure erreinua.

Zatoz, Jauna! / Maitasunez gu bete:
jendeek elkar / ezin hartu dute.
Zatoz, Jauna! / Zuk bat egin munduan: etor bedi / zure erreinua.

Zatoz, Jauna! / Lokarriak zuk hautsi.
Munduz mundu / bihotzetan mintza.
Zatoz, Jauna! / Ager zaitetz, ta jaitsi: etor bedi / zure erreinua.

(Isilunea...)

3. Jainkoaren Hitza

Isaias profetaren liburutik (35, 1-10).
Poztu bitez basamortua eta lur elkorra,
alai bedi eta loratu landa lehorra, jantzi bedi lorez,
irrintzi eta jauzi egin beza pozaren pozez!
Libano bezain ospetsu egingo du Jainkoak,
Karmel mendia eta Xaron lautada bezain eder.
Denek ikusiko dute Jaunaren ospea, gure Jainkoaren ederra.
Sendotu beso ahulduak, bizkortu belaun makalduak.
Esan bihotz-eroriei: «Eutsi gogor, ez beldurtu!
Horra zuen Jainkoa! Berbera dator zuek salbatzera
eta etsaiak menpean hartzera».

Orduan, itsuek ikusi egingo dute berriro eta gorrek entzun.
Oreinak bezala salto egingo du herrenak,
pozaren pozez irrintzi mutuak.
Basamortuan iturriak sortuko dira, landa lehorrean errekak,
hareatza kiskalietan aintzirak, paraje agorretan iturburuak.
Basa txakurren bizilekuetan belarra, kanabera eta ihia aterako dira.

Eta galtzada bat izango da han; «Bide santu» deituko zaio.
Jaunak berak irekiko du bidea.
Ez da han lehoirik izango,
ez piztia gaiztorik ibiliko, ezta bat bakarrik ere.
Bide horretatik itzuliko dira etxera Jaunak askatuak, Jaunak libre eginak;
poz-oihuka etorriko dira Sionera:
amaigabeko alaitasuna haien aurpegian!
Zoriona eta alaitasuna izango dituzte lagun;
nahigabeak eta negarra kito!

Horrela dio Jaunak.

4. Kantua (errepikatu bost-sei bat aldiz)

Gu - re i - lun - pe - tan piz - tu i - tzal - tzen ez den zu - re su -
a, mai - ta - sun - su - a! Gu - re i - lun - pe - tan piz - tu i - tzal -
tzen ez den zu - re su - a, mai - ta - sun - su - a! Gu - re i - lun - pe

(Kantu hau errepikatu bitartean, nahi dutenek kandelatxoa hartu eta piztu dezakete gurutzearen oinetan... Mugimendu eta zarata asko gabe, ahal den neurrian)

5. Barne-lana galderaz edo aitortzaz

(Isil-une luzeak eta musika suabea tartekatuz)

- Non nabil? Non nago? Nor naiz?
- Zeren bila doazkit nire pausoak?
- Zein da nire bizitzaren zentzua?

- Buruak, bihotzak ulertzen ez dituen erantzunak ematen dizkit.
- Bihotzak, buruak ulertzen ez dituen egarriak azaltzen dizkit.
- Ezagutzen al dut nire barrua? Entzun nahi al diot?
- **Nondik etxera itzultzeko bidea?**

- Gaixoaldia eta heriotza...
- Injustizia eta gerra...
- Zergatik iluntasun hotzaren esperientzia?

- Ba al da biderik?
- Ba al da etxerik?
- Bada bihotzean deika daukadan izarrik.
- **Nondik etxera itzultzeko bidea?**

- Berorik sentitzen al dut, maitasunaren pausoetan?
- Bizi nahi al dut, maitasun betearen abentura?
- Maitasunaren gurutze hortan, hortxe nire argazkia... eta nire nortasuna...
- Zu zaitugu gure gidari, Zu gure aurretik ibiltari.
- Itxaropena jaio da, konfiantzaren opari.
- Zatoz, Jesus Jauna.
- **Nondik atsedeen sakonaren bidea?**

6. Sinbolo edo irudiren bat

(Lehen egin den bezala, nahi dutenek kandelatxoa hartu eta piztu dezakete gurutzearen oinetan... Mugimendu eta zarata asko gabe, ahal den neurrian)

7. NOR DA ERROMESA. Benito Lertxundi

(Entzun egingo da kantu hau)

Nor da erromesa,
funtsezko gogoan dabilena ez bada?
Oinarrizko higidura bakoitza
erraietatik darion ur isuria da.

Maite denaz
pentsa daiteke,
maitasunaz inoiz ez;
maitasunak ez baitu karirik:
bere eternitatea da.

Ibilkari zoroa,
beti dabil
berez daukanaren bila.
Ibilkari zoroa,
beti dabil
berez daukanaren bila.

Zoaz etxera,
zeure baitan den
etxe horretara,
ibilbide guztiak
etxera itzultzeko baino ez dira.

8. Ateak zabalik irekita dauzkagu

Jauna, eskerrik asko, zure bisitagatik.
Nire etxera etorri nahi izan duzulako.
Neure barruko etxera itzultzean zu aurkitu zaitut,
nire bideetan erromes, ostatu-eske.

Ez nekien nor zinen, ez zintudan ezagutzen.
Eta hala ere, zuk bilatu egin nauzu.
Gaur maitatua sentitu naiz, eta esker onez nago.

Goazen barrura eta geldi zaitez nirekin.
Gurutzearen maitasunezko sutondoan,
nireaz hitz egin behar dugu,
nire hutsaz, nire ezinaz, nire grinaz...
Hainbeste daukat esateko, hainbeste!

Zuk badakizu nondik ibili naizen.
Badakizu nahi bai, baina ezin nuela.
Zutaz galdetzen nuen eta inork ez zintuen aurkitzen.
Orain, Jauna, etorri zara eta badakit nirekin zaudela.

Jauna, nire negu hotza Eguberri bihurtuko didazu.
Nire bide galduak zure Jubileuan argituko zaizkit.
Zatoz, Jauna, eta geldi nirekin.
Estimaten dut maitasunezko zure bisita.

Musika...